

+ Anaitasuna

III URTEA—N. 28

Suplemento a la Hoja
ANAITASUNA de Guipúzcoa

Urria (10) 1.955

MUNDU OBA BAT

Entzute aundiko filosofo ta historia-tzaille ingeles batek —Toynbee Jaunak—, deklaraziño goangarri batzuk egin ditu oraintsu Londres'eko periodikoetan. «Gaurko gizonak —diño— bidekurutze baten aurrean bizi dira. Batera edo bestera jo bear dabe. Edo, oraiñarte legez gorroto ta asarre bidetik jarraituta, batak bestea ondatu; edo, guztiok bete betean alkar-tuta, *mundu oba baten* billa joan. Es dago beste norarik».

Toynbee jaunak baiño lenago, Pio Amabigarrenak berba egin deusku orrezaz. Mundua, orain dagoan legez —ez batera ez bestera—, ezin leike luzaroan iraun. Edo *mundu oba bat* edo ikaragarriko ondamentia: auxe da, Aita Santuaren eritxiz, gaurko gizartearen etorkizuna. †

Ondo ezagututen dau beak oraingo momentuaren importantzia. Ori dala-ta, txitean-pitean egiten dituan berbaldietan, ez dau galtzen abagadunerik, bide zuzena gizoneri erakusteko. Sarritan esan deusku, oraingo asarrakuntzak eta ikusleziñak ez direala amaituko, arik-eta gizonak Jainkoagana benetan biurtu arte. Eta orren explikaziñoa emoten deusku jarraian: Gizonak ezin leikee anaiak legez alkar maitatu, baldin —arraza, klase ta nazionalidade guztien gainetik— Aita baten semeak direala siñestuten ez badabe. Eta

Aita Santuagaz batera, orixe uste dabe pentsatzaille guztiak, Mister Toynbee euren artean. Euren eritxiz, *mundu oba bat* egiteko, ez dago beste biderik erle-giñokoa baiño.

Zer egin bear dabe gizonak une historiko onetan? Guk kristiñauok, ez daukogu aikolo-maikolo ta ezmezean zetan ibilli. Aita Santuak erakutsi deusku bidea. «Antza danez —esan dau oraintsurengo Pio Amabigarrenak—, Jainkoa gauza arrigarriren bat dabil munduan prepa-retan. Beartu gura gaitu, nunbaite-be, arduratsuago ta konkretuago Jesus billa-tzera».

Jesus billatu, Jesus aurkitu: aorixe da gure gaurko eginkizuna, *mundu oba bat* gura badogu. Eginkizun gatxa, guztiz miragarria baiña. Miragarritasun aonexek, beste barik, zirikatu bear gindukez arazo onetan aspertzeke lan egiten.

Mundu oba bat! Pio Amabigarrenaren amesa! Zenbat bidar berba egin deusku orrezaz Jesukristoren Ordezkoak! Baiña mundu ori egiteko, asko aldatu bear dogu kristiñauok gure bizimodua. Evangelioaren espiritu autentikoa geuganatu bear dogu eta guztiok anaiak legez alkar maitatu. Orduantxe aurkituko dogu Jesukristo. Orduantxe bakarrik sortuko da gure artean *mundu oba baten* egunsenti zoragarria.



—Jesukristoren jaioterriak, Palestina dauko izena. Zabaleran eta luzeeran ez da áundia. Euskalerrria baiño ez askoz aundiagoa. Mediterraneo itxasoaren ertzean dago, eta bere inguruak aoneexek dira: Iparraldean Siria, egoldean Egipto, sortaldean (eguzkia sortzen dan aldean) Arabia'ko desertua, eta sartaldean Mediterraneo itxasoa. Goitik beera, erreka batek erdibituten dau Palestina osoa. Erreka orrek, Jordan dauko izena.

—Jesukristoren denporan, lau zirean Palestina'ko provintziak: Galilea, Samaria, Judea ta Perea. Galilea, Samaria ta Judea itxasertzean dagoz, Jordan ibaiaren onazko aldean; laugarren provintzia, barriz, Perea deritxona, errekearen beste aldean.


—Galilea iparraldean dago, Judea egoaldean, eta Samaria erdian. Orregaitik, Galilea'tik Judea'ra artez joan gura ezke-ro, Samaria'tik igaro bear. Pasatze ori ez zan izaten judeguen gustokoa, Samaria'n erbesteko gentea bizi zand-a. Nortzuk zirean, ba, samariarrak? Kanpotarrak, beste arraza batekoak, siñiskerizaleak, pekatariak, judeguen arerioak, atxiña judeguak Babilonia'ko desterruan egozan bitartean, erbestetik Palestina'ra etorri-rikoak. Orreexek zirean samariarrak. Ori dala-ta, Judeguak ez euken artu-emonik samariarrakaz, eta aundia zan euren arte-ko ikusieziña.

—Judea da provintzia printzipala. Bertan dago Jerusalem, Palestina'ko uri nagusia; eta antxe dago judegu erlegiñoaren Eleiza Bakarra: Jerusalem'eko Templu miragarria. Provintzia onetan jaio zan David erregea, Belen'go errian; eta milla urte geroago Belen'en jaioko da David erregearen ondorengorik ospetsuena: Jesukristo gure Jauna. Judean bizi dira judegu erriaren agintariak, eleizgizonak eta aber-tzale amurratuak.

—Galilea'ko provintzia trankillagoa da, baketsuagoa, humillagoa. Cafarnaum izan ezik, Galilea'ko erriak guztiz txikiak dira: Cana, Nazareth, Naim. Provintzia onetan biziko da Jesus ia bere bizitza guztian. Ementxe aziko da. Bertoko dialektuan berba egingo dau, eta galileartzat eukiko dabe bere jaiotzearen barri ez da-kienak.

—Jesus jaio zanean, judeguak ez euken askatasun politikorik. Beste erri indartsu baten menpean bizi zirean. Erromatarrak dira mundu guztiaren jaube; eta Erromako Emperadoreak, Cesar Augustok, aginduten dau judegu errian erregeorde baten bitartez. Ezeguten dozue erregeorde ori. Herodes dauko izena: gizon gaizto ta nabarmena, agintari malmutz ta biotz-gogorra.





Ingalaterra.—«Naiago dot nire seme-ak katolikoak izan daitezala, kondeak naiz dukeak baiño». Auxe esan dau Londres' Maria Drage'k, *ballet*'eko izarrak. Ogetairu urte daukoz, eta ez dau ezkondu gura izan Lord Carnegie, Escocia'ko duke bategaz. Drage andereñoa, Canada'ko moja kolegio baten edukatu zan, eta 16 urtegaz egin zan katolikoak.

Liverpool'eko katedralean 10.000 persona inguru batu dira, Jainkoari eskerrak emoteko. Katedrala oraindiño amaitu barik dago, eta munduko aundi ta ederretarikoa izango da. Irurogei urtean amaituko dala diño Monseiñore William Godfrey'k Liverpool'eko Artzobispoak, eta orretarako 11.200.000 dolar inguru bear izango direala.

Japon.—Domekan domekan egertzen da *Asahi* izeneko periodiko ospetsuan, «*Atzo ta Gaur*» tituluagaz, Aita Candau misiñolariaren artikulu bat. Aita Candau, frantses euskalduna da. Japonesez guztiz ondo berba egin eta idazten dau, eta bere konferentziak entzute aundikoak dira.

Alemania.—Bost milla gazte dabiltz euren borondatez erri barri bat egiten, Sartaldeko Alemania'n, Kassel uriaren ondoa. Erri ori, komunisten zonatik iges egiten daben katolikoentzako izango da. Langilleen artean seminarista askok bear egiten dabe.

Bizkaia.—Bilbao'ko Diozesian, 1955-56'ko ikastaroa 592 abadekigaz asi da: 130 teologo, 91 filosofo ta 371 latindar. Aurten 104 abadeki barri sartu dira Derio'ko seminarioan.

BILBOKO KANTUAK

(Las Bilbainadas en vascuence)

UN - IN-GLES - VI-NO - A - BIL-BA-O,
In-gles - bat - da-tor - i-kus-ten,

por - ver - la - rí-a - y - el - mar:
gu-re e-rre-kea - Bil-bo-ra:

al - ver - sus - chí-cas - bo-ni-tas
nes-ka - po-li-tak - i-ku-si

ya - no - se qui-so - mar-char.
e-ta ez-tau i-tzu-li - gu-ra.

Va-le - más
Gu-rao - dot

u-na - bil-bai-ni-ta,
nes-ka - bil-bo-ta-rra,

con - su - ca-ra -bo-ni-ta
be-re - ar-pe-gi e-de-rra

y - su - gra-cia - y - su - sal, (dos veces)
e-ta - deu-kon - ga-tza, (birritan bertso au).

que - to-das - las a-me-ri-ca-nas,
a-me-ri-ka-na - da-nak - ba-ño,

con - su in-men-so - cau-dal (tres veces).
e-ta eu-ren - di-ru-tza. (irutan bertso au).

A-PA-GA LUZ MA-RI-PO-SA A-PA-GA LUZ,
A-ma-ta ar-gi - mi-txe-le-ta - a-ma-ta ar-gi,

que - yo - no - pue-do - vi-vir - con - tan-ta - luz.
e-zin - nai-te-ke - bi-zi ain-bes-te - ar-gi-gaz.

Po-bre-ci-tos - los - bo-rra-chos
Gai-xo-ak - kan-po-san-tu-an

que es-táis - en - el - ce-m-po - san-to,
za-go-zen - moz-kor - za-le-ok,

que - Dios - os - ten-ga en - la - glo-ria
e-gon - zai-te-ze - ze-ru-an,

por - ha-ber - be-bi-do - tan-to.
or-di-ok - ar-dao - za-le-ok.

A-pa-ga - luz - ma-ri-po-sa a-pa-ga - luz,
A-ma-ta ar-gi - mi-txe-le-ta - a-ma-ta ar-gi,

que - yo - no - pue-do - vi-vir - con - tan-ta - luz:
e-zin - nai-te-ke - bi-zi ain-bes-te - ar-gi-kin:

Los - bo-rra-chos - en - el - ce-men-te-rio
Moz-kor - za-le-ak - kan-po-san-tu-an

Jue-gan - al - mus.
Mu-sean - e-gin.



EL - VI-NO - QUE - VEN-DE A-SUN-CION
Ia-so-nek - deu-kon - ar-daoa


ni es - blan-co - ni - tin-to - ni - tie-ne - co-lor
ez-ta - baltz - ez - zu-ri - ez - ko-lo-re-rik

A-sun-ción - A-sun-ción:
Ia-so-ne - Ia-so-ne:

e-cha - me-dia - de - vi-nó a - ca-ñón.
bo-ta ar-daoa - ko-bra-tu - ba-rik.

MAINE ZURRA.





EGIA TA GUZURRA

Danok dakigu gaurko ta denpora guztietako ezkontzak diruagaitik egiten direala. Baiña ez Euskalerrian bakarrik. Ikusi daigun, adibidez, Chicago'ko periodikuko batek ekarren anuntzioa:

«Nekazari gaztea naiz, neska bat bear dot ezkontako, derrigorrezkoa da traktor bat eukitea, soloak makinietako. Bialduizue fotografia bat... baiña traktorrarena».

Mexico'n pasauta. Erri koxkor baten ezeukien kartak botateko buzoirik. Maisu jauna joan zan alkate-agana, erri osoaren izenean, buzoi baten eske. Alkateari ondo iruditu jakon eta bat ipiñi eban, polito apainduta, pazaerdian.

Urtearen buruan, alkatea oporrik ederrenean egonanean, bajatorko barriri be, maisua, beste buzoi baten eske.

-Baiña, gizona-erantzun eutson alkateak-igara ipiñineban bat, eta ederra, plazaerdian. Zer posada, ba, orregaz?

-Kartak bota ta bota eta bete egin da, alkate jauna- erantzun eutson alkateari maisu lelo arek.

Kanposantu baten egozan bein aita-seme batzuk amamari lurra emoten. Biak egozan, xerio xerio, trist xamar, berba bat be esan barik. Olango baten aita ateraten dau pipea eta tabakorra irretan asten da Semeari txarto irudituten jako aitak eginekoa, baiña ezta ezer esaten eusartuten. Azkenean badiñotso.

-Baiña, aita, eztau ikusten berorrek kanposant baten gagozala? Zelan erretan dau?

-Eztakik leitan ala? Eztok ikusten leku guztietan eskribiduta dagoela: erre i pe, erre i pe.

GURE LAGUNAK

GERGORI



BAGAZTELU EDERRA EGIN DOGUNA!

ONDARTZA-KORIK ONENA DA IZAN BE.

BEGITU LELO GAIZTO ORRERI UMEAREN GAZTELUA AUSTUTEN.

AI... AI...



ENE! GUGA-NANTZA DATOR!

GURA DOZUE JOKO BARRI BAT IRAKATSI DAIZUEDAN?

BAI, ZER DA?



AUXE!

BLAUSTA!

APURTU EIN DAU!



GOGOZ EMONGO NEUSKIZU BELARRIONDO-KO BAT?

ALA BAI! ASI ZAITEZI GURA DODAZAN GAZTELU GUZTIAK APURTUTEN DODAZ!



BA-BA-BADA SASOIA BATEN-BATEK EDUKAZINO APUR BAT EMON DAION!

ETA GEUK E-MONGO DEUTSAGU EMON BE! LAGUNDAZUE FRABIKARRAINO!



ZEMENTO ONEGAZ KONPONDUKO GARA IRAKASPEN ORI EMOTEKO. UR ETA ARE APUR BATEGAZ NASTUKO DOGU IBELTZERVEN MODUAN.



GERDAGO

BEGITU! EMEN DATOR!

EDERTO TA ARIN GOGORTU DA.



BAINA EGIN DOZUE BESTE GAZTELU BAT? LASTER ZATITUKO DOT ORI BE BESTEA LEZ.

ALA BAI! EKIN, GOGOKOA BADOZU.



Aii...
BLAUSTA!



ONEZKERO ORREK EZTAU APURTU-KO GAZTELU GEIAGO.

AI... AI... AI...



Legea ta Espiritua

AMAORDE ALA AMA

Zoaz Bilbao'ko portura, eta moiletako langilleeri dei eginda, asi zakioez esaten: "Gizonak, erlegiño bat dakartsuet, zuen grina txar guztiak menperatuten lagunduko deutsuena". Egingo neuke, dozeña erdi bat gizon ezetz ekarri zeure ondora. Baiña zoaz Bilbao'ra naiz Barcelona'ra, ta portuko langilleeri egioezu berba: "Lagunak, zeuen askatasuna dakartsuet. Aurrerantzean ez dozue ugazaba baten menpean bizi bearko. Neuk etengo deutsuedaz zuen katigutasunaren kateak". Onelan berba egiten badeutsezu, arrapaladan etorriko jatzuez danak eta agoa zabalik entzungo deutsuc.

Alantxe egiten eban San Paulok Corinto'ko portuan. "Begira -esaten eutsen- munduaren edertasuna ta bertan agiri dan orden miragarria. Ortik dator Lege Naturala. Zoritxarrez, ordena ori gizonak ausi egin eben, eta ordenearen orde zalaparta, naastea, pekatua sortu zan munduan. Egiñen egiñez oitu egin zirean gizonak pekatuagaz, eta aztu bere gaiztotasunagaz. Euren jainko guzurrezkoak ontzat emoten eutsezan gaiztakeri guztiak: Venus'ek aragizko loikeria, Merkurio'k lapurretea, Marte'k asesinatua, etc. Gizonak konturatu be ez zirean egiten euren egokera makurragaz. Bidezkoa irixten eutsen euren bizi-moduari, eta Salbagille baten guraria ta itxaro-pena galdu egin eben. Ain zan errukarria euren izakerea".

Baiña, dana dala, Salbagille ori mundura etorriko zan, eta emon egingo eutsen gizoneri egokera triste orretatik urtetako gogo.

Orretarako, judegu erria autatu eban Jainkoak, eta Sinai mendiko Legea emon eutsan. Arrezkero ba-ekien gizonak Ona ta Txarra nun

egoan. Ba-ekien aintzat artzen arimako gauzak. Ori gorabeera, biotz-gogorak zirean judeguak, eta Lege ori gordetako *akulu bearra* euki eben. Ori dala-ta, "esklabu legea" deitu eutsan San Paulok judeguen Legeari. Alan ta guztiz-bere, ez da bildurra Jainkoak bere umeakandik gura dabena, maitasuna baiño.

Bai! Kristo Salbagillea orrexetarako etorri zan mundura: askatasuna ekarteko, ta bere Espiritua -bere Maitasuna- guri emoteko. Berak idigi euskun Jainkoaren Erreñua, mundu barria. bertan ez bildurrez, maitasunez baiño obarantza joateko.

Erreboluziño aundia, egiazko erreboluziño bakarra, Kristok egin ebana. Beste erreboluziñoak ez dabezgauzak onerantza aldatuten. Gizon oker bat beera bota, bere orde besta okerrago bat ipinteko. Kristoren erreboluziñoak mundu bi jarri zituan bata bestearen kontra: alde baten justizia, ordenea ta maitasuna, beste aldean pekatua, naastea ta egoismoa.

"Paganoen zuzendaria -diño San Paulok- egoismo da, formalismoa judeguena, Maitasuna kristiñauena". Maitasunaren dotriñea MISTIKA bat da, mistika indartsua, arimeari aparteko argia ta adorea emoten deutsana.

Zoritxarrez, gure artean asko bizi dira, Kristoren Legeari judeguen antzera obedeziatan deutsenak, ez maitasunez, bildurrez baiño: Legeak galerazoten dabelako edo inpernuaren naiz beste zerbaiten bildur direalako.

Beñola baten, andra bateri ume bi emon ei eutsezan jagoteko. Amaordeko orreri ganora bakotxua zala-ta, alper usain apur bat eukola-ta, irureun ta berrogetamalau artikuluko erreglamentu bat emon eutsen, eta alguazil bat bere gain erreglamentua gorde erazoteko. Modu onetan, egiñezina biurtu jakon laster bere arazoa, eta guztiz gorrotagarria bere bizibidea. Maitasun barik, esklabuen antzekoa begitanduten jakon bere egokerea.

Umeen egiazko ama, kamptik izanda gero etxeratu zanean, umeak beragana deitu zituan. O ze maitasun samurra orduan, bai amarena ta bai umeena! Bere umetxu laztanak! Ez geiago amaorderik, alguazillik eta erreglamenturik! O ze zoriona guztiena!

Kristoren aurretik, gizonak Jaunaren Legea bildurrarren gordetan eben karga astun bat bailitizan. Kristo etorritakoan, barriz, Jainkoa maite izatearren egin bear geunke dana

PIRMIN

burrukalaria

K.O.

